

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai ekainaren 1ean

Chagall. Urte erabakigarriak, 1911–1919

Babeslea:

Fundación **BBVA**

Guggenheim Bilbao Museoaren asmo handiko erakusketa-proiektuetan parte hartzen jarraitzeak agerian uzten du BBVA Fundazioak erakundearekiko duen konpromisoa. Kasu honetan, gainera, XX. mendeko pintore interesgarrienetako baten obra-multzo mirezgarria Bilbora ekartzeko aukera ospatzen dugu: Marc Chagall-ena. *Chagall. Urte erabakigarriak, 1911-1919* erakusketaren bidez, artistaren ibilbideko funtsezko epealdian barneratuko gara, haren ekoizpenak ezaugarritu zituen estiloa sortu zen garaian, hain zuzen.

Erakusketak ondorengoak erakutsiko dizkigu: artistaren obra gidatu zuten motibazio sakonak, obran eragina izan zuten abangoardiako mugimenduak eta haren karreran erabakigarriak izan ziren gaiak. Chagallen hizkuntza erabat pertsonal eta ezaguterrazaren jatorria aztertzen du erakusketak, haren lirismoan eta argiz eta kolorez beteriko eszenen azpian murgiltzen da; haren unibertso adierazgarri eta enigmatikoan, ipuin eta poesietako protagonistak diren mitologia partikularreko izakiekin batera; erritu eta pertsonaia juduak agertuko dira, eta maitale hegalaria. Leihoak zerumuga berrietara zabaltzeko lekua izango da Museoa.

Ikusleek Chagallen obran gutxien ezagutzen diren interpretazio-alderdietan barneratzeko aukera izango dute, eta haren lanetan artistaren biografia bera eta historian haren bizipenak sartzeko era nola islatzen diren ulertu ahalako dute. Erakusketan ondorengo gaiak nabarmentzen dira, besteak beste: Chagallen obran Vitebsk jaioterriak, zein komunitate juduak (haurtzaroa bertan igaro zuen) izan zuten garrantzia; San Petersburgon jasotako prestakuntza eta errusiar arte tradizionalako prestakuntza; Parisen abangoardiak ezagutzea, hiria arteen hiriburu zenean, Louvre-ko maisu handien obrak ezagutzeko aukera eskaini ziolarik; eta, azkenik, Lehen Mundu Gerran izandako bizipena eta baita Errusiar Iraultza ere, gauzatzeri iritsi ez ziren ilusioak izatera eraman zuena.

Chagallen ustez, barneko mundua ikusten zen mundua edo itxuren mundua baino askoz ere errealagoa izan zitekeen, eta pinturan hori irudikatzen ahalegindu zen. Bizitza artearen ospakizuna bezala hartu zuen, eta haren artea bizitzaren ospakizuna izan zen, haren edertasunarena eta tragediarena, haren egunerokotasunarena eta aparteko izaerarena, maitasunarena eta alaitasunarena. "Ez nuke besteak bezalakoia izan nahi; mundu berria ikusi nahi dut", baieztatu zuen.

Ziur nago erakusketa honek berriz ere Bilbo erakarpen zentro bihurtuko duela, artearen bitartez gaur egungo egoera eta berehalako etorkizuna ulertu nahi duten haienezako. Guggenheim Bilbao Museoaren aparteko taldea zoriondu nahiko nuke, hango buru den Juan Ignacio Vidarte, eta Lucía Agirre komisarioa, erreferentziazko erakusketa hau sortu eta diseinatzeagaitik.

Francisco González

BBVA Fundazioaren presidentea

Chagall. Urte erabakigarriak, 1911–1919

- Datak: 2018ko ekainak 1–irailak 2
 - Komisarioa: Lucía Agirre, Guggenheim Bilbao Museoa
 - Kunstmuseum Basel-ek antolatutako erakusketa, Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan
 - Babeslea: BBVA Fundazioa
-
- Parisko lehenengo etapan, koloreekin, forma abstraktu eta geometrikoekin, mugimenduarekin eta bere ametsekin esperimintatu zuen Chagallek.
 - Chagallen obra ezin da soilik kubista, soilik espresionista edo soilik surrealizatzaile jo, estilo ugariaren nahaspilatzaile baizik; estilo horiek modu pertsonalean erabiltzen dituzte artistak bere istorioa kontatzeko.
 - Errusiako herri-artearen eta familia-kulturaren oroitza Parisko abangoardiaren esperimentu estilistiko aurreratuenekin nahasten dira.
 - "Batez ere arimaren egoera bat iruditzen zait artea". Marc Chagall

Guggenheim Bilbao Museoak *Chagall. Urte erabakigarriak, 1911–1919* erakusketa dakarkigu. Estilo nahastezineko margolari berezi horren 80 pintura eta marrazki baino gehiago ikusi ahal izango dira, guztiak haren ibilbidearen hasierakoak. Chagallen unibertsoa itxuraz soilik da, baina errealitate konplexu bat ezkutatzen du, mundu antagonikoak elkartzen dituena. Kunstmuseum Basel-ek antolatu du erakusketa, Guggenheim Bilbao Museoarekin elkarlanean eta BBVA Fundazioaren babespean.

1887an jaio zen Chagall, familia judutar hasidiko batean, , garai hartan tsarren Errusiaren baitan zegoen Vitebskeko hiri txikian. Mugaz inguratuta bizi izan zen: komunitateak jartzen zituen Errusiako artean eta kulturaren murgiltzeko mugak, baina baita garaiko politikek ere, judutarrak ghettoetan marjinalizatzen baitzituzten eta eskubideak kentzen baitzizkieten. Hala ere, Marc Chagall gazteak goiz egin zion aurre horri guztiari: Errusiako eskolan ikasten hasi zen; gero, arte-ikasketak egin zituen Yuri Penekin, Vitebsken; eta, ondoren, San Petersburgora joan zen bizitzera, judutarrek baimen berezi batekin soilik egin zezaketena.

Hala ere, 1911n gertatu zen haustura erabakigarria March Chagallentzat, Parisera joan eta bertan bizimodu berriari ekin zionean. Hiru urtez, 1914ko maiatzera arte, Parisen egin zuen lan Chagallek; bertan sortutako obra multzoan, Vitebskeko komunitate hasidikoko bizimoduaren oroitza Parisko abangoardiak eskaintzen dizkion esperimentu estilistiko aurreratuenekin nahasten dira; besteak beste, Pablo Picassoren, Robert eta Sonia Delaunayren eta Jacques Lipchitzen esperimentuekin.

1914an, jaioterrira itzuli zen, arrebaren ezkontzara joateko eta bere emaztegaia, Bella Rosenfeld, ikusteko, baina Lehen Mundu Gerra hasi zen, eta bertan geratu behar izan zuen, zortzi urtez. Orduan, bere burua aurkitzeko fase batean murgildu zen artista, garai hartako obran ikusten denez; honakoek osatzen zuten nagusiki obramultzo hori: autorretratuak, bere familiako eta komunitateko kideen eguneroko bizitzako irudikapenak, gerrak eragindako kalte handien marrazkiak, eta Iraultzaren ondoren sortu zen Errusia berriaren irudikapenak.

305. aretoa. Paris, artisten erlauntza

“Inpresionismoa eta kubismoa arrotzak egiten zaizkit”. Marc Chagall, *Nire bizitza*.

1911n, León Baksten eskolan ikasi ondoren, eta judutarren eskubideen alde borrokatu zen mezenas eta abokatu judutar Maxim Vinaverren laguntza ekonomikoa jaso ostean, March Chagall Parisera joan zen. Nahiz eta ikusia izan besteak beste Cézanne, Manet, Monet eta Matisseren arte modernoa Baksten eskutik, Parisen ezagutu zuen Chagallek lehenengo abangoardien eta Louvreko hormetan zintzilik zeuden maisu handien artea. Denboraldi labur batez Vitebsken egon ondoren, Errusiatik joan aurretik, Chagallek zenbait marrazki egin zituen (hiriarenak, gurasoenak, senideenak eta emaztegaia-arenak), baita hainbat pintura ere (komunitate judutarreko bizimoduari buruzkoak). Marrazki eta pintura horietan guztietan, Errusiako herri-artearen arrastoa ikus daiteke, eta kolore biziak dira nagusi, San Petersburgon egon zenean ere erabili zituenak. Hona hemen marrazki eta pintura horietako batzuk: *Nire andregaiak eskularru beltzekin* (*Ma fiancée aux gants noirs*, 1909), *Kale-garbitzailea eta ur-eramailea* (*Le balayeur et le porteur de l'eau*, 1910–1911), eta Chagallen familiari egindako marrazkiak.

Parisera iritsi zenean, Chagall Montparnasseko estudio batean bizi izan zen zenbait hilabetez, baina, handik gutxira, La Ruche (Erlauntza) egoitzara joan zen bizitzera, inguru berean. Artistaren beraren hitzetan, “bazter guztietako artista bohemioak” biltzen ziren egoitza hartan. Diru kopuru txiki baten truke sortzaileei alokatzen zitzaizkien logela eta estudioen multzo handi honetan ezagutu zituen Blaise Cendrars eta Sonia eta Robert Delaunay, eta haiek, gero, Guillaume Apollinaire poeta aurkeztu zioten. Handik gutxira, Chagallen lanaren babesle bihurtu zen Apollinaire; “naturaz gairikoa” zela esaten zuen, garai hartan Chagall koloreekin, forma abstraktu eta geometrikoekin, mugimenduarekin eta bere ametsekin esperimentatzen ari zelako.

Nahiz eta haren lanean eragina duten inguruko “ismoek”, Chagallek bere mundu pertsonala kontatzen du, hainbat unibertsoz osatutakoa. Yidisarekin gertatzen den bezala, Chagallen obra ere fusio-hizkuntza da, berezia, eta ezin da soilik kubista, soilik espresionista edo soilik surrealizatza jo, estilo ugariren nahaspilatza baizik; estilo horiek modu pertsonalean erabiltzen ditu artistak bere istorioa kontatzeko.

Areto honetan, Parisera iritsi zenean egindako lanak ikus daitezke, hala nola *Gela horia* (*La chambre jaune*, 1911) eta *Ni eta nire herria* (*Moi et mon village*, 1911); baina baita La Rucheko estudioan margotu zituen beste batzuk ere, hala nola *Mazin poeta* (*Le poète Mazin*, 1911–12), *Abere-tratularia* (*Le marchand de bestiaux*, 1912)

eta *Paris leihotik* (*Paris par la fenêtre*, 1913). Azken horretan, Paris ageri da, Chagallen ikuskeratik, baina haren jaioterria den Vitebskeko oroitzapenak eta irudiak ere ikus daitezke.

306. aretoa. Paristik Vitebskera, Berlindik igarota

“Bi munduren artean etzanda nago, eta leihotik begiratzen dut”. Marc Chagall, *Nire bizitza*.

Chagallek Parisen izan zituen harremanen adibiderik onena, zalantzarik gabe, *Omenaldia Apollinaireri* (*Hommage à Apollinaire*, 1911–12) da, Guillaume Apollinaireri zion mirespenetik sortua. Lanaren muina Adam eta Evaren jaiotza da, Genesiaren ahozko tradizio judutarrari jarraiki; izan ere, horren arabera, Jainkoak gorputz bakarrean sortu zituela gizona eta emakumea. Baina, lan horretan, Apollinaireren izenaz gain, Chagallen lagun talde gertukoena osatzen dutenen izenak ere ageri dira: Blaise Cendrars poeta eta nobelagile suitzarra; Ricciotto Canudo kazetari eta antzerkigile italiarra (ustez teoria zinematografikoaren abiarazlea); eta Herwarth Walden galerista alemaniarra.

Herwarth Walden (Georg Lewin) galeristak gonbidatu zuen 1914an Chagall haren galerian (Der Sturm) erakusketa bat antolatzerako; Chagallen banakako lehenengo erakusketa handia izan zen hura. Bertan, Parisen bizi izan zen garaiko 40 pintura eta 160 marrazki, gouache eta akuarela aurkeztu zituen, eta zirrara handia eragin zuten espresionista alemaniarren artean. Egun batzuk geroago, Chagall Vitebskera itzuli zen arrebaren ezkontzara joateko, baina Lehen Mundu Gerra hasi zen, eta Errusiatik atera ezinik geratu zen, zortzi urtez.

Garai hartako lanetan, gerrak dakarren guztia irudikatu zuen Chagallek; lan horietako batzuk *Soldaduak* (*Soldats*, 1914), *Gerrara abiatzea* (*Le départ pour la guerre*, 1914) eta *Soldadu zauritua* (*Le soldat blessé*, 1914) dira. Bestalde, paisaiak eta eguneroko egoerak ere ikus daitezke, baina forma eta kolore gutxiagorekin eta “logika” baten barruan dauden lotura eta eskalen bitartez; hala gertatzen da, besteak beste, lan hauetan: *Maryasenska: artistaren arrebaren erretratua* (*Maryasenska. Portrait de la soeur de l'artiste*, 1914), *Liozno* (1914) eta *Bizartegia* (*Osaba Sussy*) (*Le salon de coiffure (Oncle Sussy)*, 1914). Chagallen obrak berriz ere dir-dir egiten du Bella Rosenfeldekiko maitasuna eta harremana irudikatzerakoan; horren adibide ditugu *Urtebetetzea* (*L'anniversaire*, 1915) eta *Maitaleak urdinez* (*Les amoureux en bleu*, 1914).

307. aretoa. Tradizioa eta iraultza

“Ikusten nuen guztia pintatzen nuen. Leiho ondoan egiten nuen lan; inoiz ez nintzen kalera ateratzen pintura-kaxarekin”. Marc Chagall, *Nire bizitza*.

Lehen Mundu Gerran, judutarrak gudaren lehenengo lerroan kokatu zituzten, tsarren Errusiarekin kolaboratzen zutela esanez, eta haietako asko kanporatu egin zituzten. Urte haietan, baziren sionismoaren aldekoak (ordukoa da Balfourren deklarazioa), baina baita aurkakoak ere.

Nazioartean konfrontazioa nagusi zen bitartean, Marc Chagallek bere nortasunarekin eta bere herriko folklore eta etnografiarekin erlazionatutako gaiei heldu zien berriz ere. Hona hemen garai hartako obra aipagarrietako batzuk: judua berdez, gorriz eta zuri-beltzez; modu okerrean bada ere, “Lau errabino handiak” bezala dira ezagunak, eta hemen batera ikusi ahalko dira, salbuespen gisa, haietako hiru Kunstmuseum Basel-ekoak baitira, eta *Judu gorria* (*Le Juif rouge*, 1915) lanean (San Petersburgoko Estatu Museo Errusiarreko bildumakoa).

Chagallek “dokumentu” deiturikoetan sartzen dira obra horiek, haiek sortzeko artistak ez zituelako bere oroitzapenak hartu abiapuntu gisa, Parisen bezala, baizik eta inguruko pertsonaiak eta objektuak erabili zituelako (adibidez, egunkari-saltzaile bat, eskale bat, erloju bat eta ispilu bat), eta haiei esanahi handiko elementuak gehitu zizkielako (esaterako, talita, tefilina eta yiddishez, hebreeraz edo zirilikoz idatzitako testuak). Areto honetan bertan, bi obra mimetiko ikus daitezke, *Errabinoak* deiturikoak; hamarkada bat baino gehiago igaro zen lehenengoa egin zenetik bigarrena margotu arte.

Errusian harrapatuta geratu zenean, Chagallen ezagun batzuek hilda zegoela pentsatu zuten. Haietako bat Berlingo galerista izan zen, eta 1914tik Der Sturm galerian zeuden Chagallen obretako asko bildumazale pribatuei saldu zizkien. Chagallek asko sentitu zuen obra haietako batzuk galdu izana. Ondorioz, haietako batzuk erreproduzitu, eta, orduz geroztik, esanguratsuenen hainbat bertsio egin zituen. Obra haietako bat *Judua zuri-beltzez* (*Le Juif en noir et blanc*, 1914) da; gaur egun, haren hiru bertsio daude.

Urte haietan, 1905eko iraultzatik, intelektualek eta hirietan goi-kargudun izan ziren goi-klaseetako judutarrek ordura arte ukatu zitzaizkien askatasunetako batzuk lortu zituzten. Horrela, Chagall arteak garatzeko elkarte judutarrean (JSEFA) sartu zen, eta modu aktiboan parte hartu zuen bertako erakusketetan. Elkarrekin proiektu garrantzitsuak eskatu zizkion; besteak beste, bigarren hezkuntzako eskola baterako mural batzuk (erakusketa honetan ditugu muralak prestatzeko egindako marraskiak *Haur-kotxea* edo *Kotxetxua* (*La voiture d'enfant ou La calèche*, 1916–17), yidisez idatzitako Peretzen liburu batzuetarako ilustrazioak (adibidez, *Magoa*, [*Der Kuntsenmakher* 1915]), eta Alexander Granowskyk Moskuko Estatu Antzoki Judutarreko dekoratuetarako egindako enkargu handia (tartean *Musikarako estudioa* [*Moskuko Estatu Antzoki Judutarreko laugarren panela*], 1917) [*Étude pour La musique (Quatrième panneau pour Le Théâtre d'art juif de Moscou)* 1917]. Ekitaldi garrantzitsuetan ere hartu zuen parte, hala nola *Diamantezko Jotaren* erakusketan; eta artisten sindikatuan sartu zen.

Beste judutar batzuentzat bezala, Chagallentzat ere iraultza zen judutarren berdintasun-faltaren irtenbidea. Hori dela eta, modu aktiboan hartu zuen parte Errusia berria eraikitzeko lehenengo etapetan, eta, 1918an, Vitebskeko Arteen Komisario hautatu zuten. Horrela, haren esku geratu ziren lurraldeko museoak, arte-eskolak eta beste ekitaldi artistiko guztiak. Urte haietan, Bella emaztearekin eta Ida alabarekin bizi izan zen jaioterrian. Herriko arte-eskola sortu zuen, eta zenbait artista gonbidatu zituen bertan parte hartzera; besteak beste, Lissitzky eta Malevich. Baina laster hasi ziren arazoak. 1920an, proiektuarekin loturarik ez zuela ikusita, Chagall Vitebsketik joan zen, eta amaiera eman zion bere bizitzako garai garrantzitsu bati.

DIDAKTIKA

Jendeari erakusketako edukia eta kontzeptuak bisitariei hurbiltzeko, Museoak hainbat azalpen eskaintzen ditu bertako eremu didaktikoan: batetik, Parisek, Lehen Mundu Gerrak, Errusiako Iraultzak eta tradizio judutarrak Chagallen sorkuntza-lanean izan zuten eragina; eta, bestetik, hain ezagunak ez diren artistaren zenbait alderdi, hala nola arte eszenikoetarako, muraletarako, beirateetarako eta kontakizunetarako egindako lanak.

Gainera, Chagallen munduari soinua eta irudia jarriko diote honako hauek: Chagallen beraren lekukotzak biltzen dituen bideo bat; Solomon Yudovin artistak judutarrei ateratako argazkien bilduma; eta Aaron Copland-en musika-pieza bat, *Vitebsk. Study on a Jewish Theme* izenekoa.

Hona hemen erakusketari lotuta antolatuko diren jarduera didaktiko nagusiak.

Partekatutako hausnarketak

Museoko profesionalek egindako bisita eksklusiboak.

- Arte arduradunaren ikuspegia (ekainak 6), erakusketaren komisario Lucía Aguirrerekin.
- Funtsezko kontzeptuak (ekainak 20), Museoko Hezkuntzako koordinatzaile Luz Magureguirekin.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre.

Gerra Handia: pianorako elegia (ekainak 22)

Piano-kontzertua María Cueva Méndezen eskutik, Lehen Mundu Gerraren amaiera ospatzeko, Chagallen obran eragin handiena izan zuten gertakarietako bat, garai hartan egindako obra indartsuek erakusten duten bezala. Ekitaldian, garaiko grabazioak jarri eta irudiak proiektatu ere egingo dira.

KATALOGOA

Erakusketarekin batera, irudidun katalogo bat argitaratuko da; bertan, dozena bat testu eta saiakerak artistaren eta haren testuinguruari dagozkion hainbat gai landuko dituzte, haren ibilbideko funtsezko urte horietan arreta jarrita.

Azaleko irudia:

Urtebetetzea (L'anniversaire), 1915

Olio-pintura kartoi gainean

80,6 x 99,7 cm

The Museum of Modern Art, Nueva York, honen bidez eskuratua: Lillie P. Bliss ondarea (elkartruke bidez), 275.1949

© 2018. Digital image, The Museum of Modern Art, New York/Scala, Florentzia

© Marc Chagall, Vegap, Bilbo 2018

Argibideetarako:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketin Saila
Tel.: +34 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.eus
(prentsa-eremua).

Prensa irudiak:

Chagall. Urte erabakigarriak, 1911-1919

Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Ora indik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Prentsan erabiltzera bideratutako irudiek ondorengo zehaztapenak bete behar dituzte:

- Erakusketari buruzko artikuluetan bakarrik erabil daitezke.
- Osotasunean erreproduzitu behar dira, mozketarik, gainjartzerik edo manipulaziorik gabe.
- Irudiaren oina zerrendan agertzen den bezala adierazi, mesedez.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoko bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Gela horia (La chambre jaune), 1911

Olio-pintura mihise gainean

84,2 x 112 cm

Fondation Beyeler, Riehen/Basel, Ernst eta Hildy Beyeler Bilduma

Argazkia: Robert Bayer

© Marc Chagall, Vegap, Bilbo 2018



Abere-tratularia (Le marchand de bestiaux), 1912

Olio-pintura mihise gainean

97,1 x 202,5 cm

Kunstmuseum Basel, 1950ean eskuratua Dr. h.c. Richard Doetsch-Benziger-en ekarpenarekin, Inb. 2213

© Marc Chagall, Vegap, Bilbo 2018



Omenaldia Apollinaireri (Hommage à Apollinaire), 1913

Olio-pintura, urre-hautsa eta zilarra mihise gainean

200 x 189,5 cm

Van Abbemuseum, Eindhoven

Argazkia: Peter Cox, Eindhoven, Herbehereak

© Marc Chagall, Vegap, Bilbo 2018



Gurdi hegalaria (La calèche volante), 1913

Olio-pintura mihise gainean

106,7 x 120,1 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim

Sortze Bilduma, 49.1212

© Marc Chagall, Vegap, Bilbo 2018

*Autorretratu (Portrait de l'artiste)*, 1914

Olio-pintura kartoi gainean, mihise gainean muntatua

50,5 x 38 cm

Im Obersteg bilduma, gordailu iraunkorra Kunstmuseum Basel 2004,

Inb. Im 1081

© Marc Chagall, Vegap, Bilbo 2018

*Gerrara abiatzea (Le départ pour la guerre)*, 1914

Txinako tinta eta arkatza paper gainean, Japoniako paper gainean

21,1 x 17,1 cm

Bilduma pribatua

Argazkia © Ewald Graber

© Marc Chagall, Vegap, Bilbo 2018

*Egunkari-saltzailea (Le marchand de journaux)*, 1914

Olio-pintura kartoi gainean

98 x 78,5 cm

Musée national d'art moderne, Centre Georges Pompidou, Paris, Ida

Chagallen dohaintza, 1984, AM1984-121

© Marc Chagall, Vegap, Bilbo 2018

*Erlojua (La Pendule)*, 1914

Gouachea, olio-pintura eta koloretako arkatzak paper gainean

49 x 37 cm

Tretiakov Estatu Galeria, Mosku

© Marc Chagall, Vegap, Bilbo 2018

*Judua zuri-beltzez (Le juif en noir et blanc)*, 1914

Olio-pintura kartoi gainean, mihise gainean muntatua

101 x 80 cm

Im Obersteg bilduma, gordailu iraunkorra Kunstmuseum Basel 2004,

Inb. Im 1084

© Marc Chagall, Vegap, Bilbo 2018



Urtebetetzea (L'anniversaire), 1915

Olio-pintura kartoi gainean

80,6 x 99,7 cm

The Museum of Modern Art, Nueva York, honen bidez eskuratua: Lillie P.

Bliss ondarea (elkartruke bidez), 275.1949

© 2018. Digital image, The Museum of Modern Art, New York/Scala,
Florentzia

© Marc Chagall, Vegap, Bilbo 2018



Magoa (Ytzhak Leibusch Peretz-en ipuinerako ilustrazioa, yiddishez argitaratua Vilniusen, Kletzkin, 1917) [Der Kutsenmakher, (Illustration pour le conte de Ytzhak Leibusch Peretz publié en yiddish à Vilnius, chez Kletzkin, en 1917)], 1915

Tinta eta gouache zuria paper gainean

22 x 18 cm

Musée national d'art moderne, Centre Georges Pompidou, Paris, dohaintza,
1988, AM 1988-184

Argazkia © Centre Pompidou, MNAM-CCI, Dist. RMN-Grand Palais /
Philippe Migeat

© Marc Chagall, Vegap, Bilbo 2018



Marrubiakedo Bella eta Ida mahaian (Les fraises ou Bella et Ida à table), 1916

Olio-pintura kartoi gainean, mihise gainean itsatsia

45,5 x 59,5 cm

Bilduma pribatua

Argazkia © Ewald Graber

© Marc Chagall, Vegap, Bilbo 2018



Musika lanerako estudioa (Laugarren panela Ganberako Antzokia Estatu Judurako, Mosku) [Étude pour La Musique (Quatrième panneau pour Le Théâtre d'art juif de Moscou)], 1917

Arkatza eta gouachea koaderno-orri gainean, japoniar paper gainean

32 x 22 cm

Bilduma pribatua

Argazkia © Ewald Graber

© Marc Chagall, Vegap, Bilbo 2018



Paseoa (Promenade), 1917–18

Olio-pintura mihise gainean

170 x 163,5 cm

Errusiako Estatu Museoa, San Petersburgo

© Marc Chagall, Vegap, Bilbo 2018



Marc Chagall, ca. 1910/1911

© Archives Marc et Ida Chagall

